



<b>aienatu</b> 'aldendu, uxatu'	«Tente egote hutsarekin zakurrari hasi zitzaion irudikortasunaren amarauna burutik <b>aienatzen</b> ...»	(37)
<b>amaraun</b> 'aramuen sarea'	«Tente egote hutsarekin zakurrari hasi zitzaion irudikortasunaren <b>amarauna</b> burutik aienatzen...»	(37)
<b>apailatu</b> 'prestatu'	«Etsi zuen masailak izoztuta zeuzkala; hori bazekien, eta damu mina zuen sudur estalgarri bat <b>apailatu</b> ez izana...»	(16)
<b>arritzu</b> 'txistua, atzamarrak ahoan	«...bere buruaren onuragatik gutiziatzen zuen sutondora itzultzea. Baina gizonak <b>arritzuaren</b> eta zartailuaren hotsarekin hitz egin zion...»	(23)
<b>arro</b> 'ibai-bidea'	«...milia batzuk ibili, laharrez jositako zelaiune zabal bat zeharkatu eta munto batean behera eginez, hormatutako erreka baten <b>arroyaino</b> jaitsi zen.»	(14)
<b>arta</b> 'ardura'	« <b>Artaz</b> eta esku baldarrez mainatu zuen sugarra. Bizia esan nahi zuen eta ez zen irautsi behar.»	(35)
<b>atza</b> 'berrito'	«Opilari mokadu bat kentzeko paradarik ere ez zuen izan. Hatz joka jardun eta <b>atza</b> jantzi zituen eta beste eskua erantzi, jateko asmoarekin.»	(20)
<b>barrena</b> 'zehir, gairi'	«...ekialdera bidezidor lauso eta ibil-bakan bat luzatzen baitzen, izei lodien baso-eremuan <b>barrena</b> .»	(7)
<b>barrendu</b> 'barneratu'	«Izei lodien artetik <b>barrendu</b> zen. Bidezidorra lauso zegoen.»	(11)
<b>barrundatu</b> 'somatu'	«Zerbait gertatzen zen, eta zakurraren sen irudikorak arriskua <b>barrundatu</b> zuen...»	(37)
<b>besanga</b> 'abarra, adarra'	«Ordea, su egin zuen tokiaren gaineko zuhaitzak elurrez zamaturik zeuzkan <b>besangak</b> .»	(28)
<b>bidezidor</b> 'bideska, bide estua'	«Izei lodien artetik barrendu zen. <b>Bidezidorra</b> lauso zegoen.»	(11)
<b>bisaia</b> 'ikuspegia'	«...goxo-goxo etzan eta hodeizko errezel batek kanpoko espazioaren <b>bisaia</b> estali arte, bertan egoteko modukoa...»	(22)
<b>bizi-aldarrika</b> 'biziari deika'	«Hantxe zegoen sua, txartaka eta txinpartaka eta <b>bizi-aldarrika</b> gar dantzari bakoitzarekin.»	(28)
<b>damu mina</b> 'benetako damua, atsekabea'	«Etsi zuen masailak izoztuta zeuzkala; hori bazekien, eta <b>damu mina</b> zuen sudur estalgarri bat apailatu ez izana...»	(16)
<b>dizdizka</b> 'diz-diz egiten, distirutzen'	«...zeru hotzaren barnean jauzi eta dantza eta <b>dizdizka</b> ari ziren izarren azpian.»	(45)
<b>eguargi</b> 'egunsentia, eguna argitzea'	« <b>Eguargia</b> hotz eta gris urratu zuen, izugarri hotz eta gris, gizonak Yukoneko bide nagusitik saihestu eta ibai hegi erpinean gora egin zuenean...»	(7)
<b>egundaino</b> 'ordura arte, sekula'	«Aldian behin gogora etortzen zitzaion hozt handia zegoela eta halako hotzik <b>egundaino</b> ezagutu gabea zela.»	(15)
<b>erantzi</b> 'kendu'	«Su egiteko eskularrak <b>erantzi</b> behar izan zituen, eta hatzak berehala zurrundu zitzaizkion.»	(25)
<b>erauzi</b> 'atera'	«...eskuineko eskularrua erantzi eta jela zatitxoak <b>erauzten</b> lagundu zion.»	(19)
<b>ernai</b> 'zuhurra, ernea'	«Azkarra eta <b>ernaia</b> zen bizitzako gauzetan, baina gauzetan bakarrik, eta ez esanahietan.»	(9)
<b>ernatu</b> 'sortu'	«Baina eskuetara ez zitzaion sentsaziorik <b>ernatu</b> .»	(39)
<b>erpin</b> 'aldapatsua'	«Eguargia hotz eta gris urratu zuen, izugarri hotz eta gris, gizonak Yukoneko bide nagusitik saihestu eta ibai hegi <b>erpinean</b> gora egin zuenean...»	(7)
<b>errefusatu</b> 'baztertu, ukatu'	«Pentsamendu hori zokoratuta eduki eta kontuan hartzea <b>errefusatu</b> zuen.»	(40)



<b>errezel</b> 'kortina, oihala'	«...goxo-goxo etzan eta hodeizko <b>errezel</b> batek kanpoko espazioaren bisaia estali arte, bertan egoteko modukoa...»	(22)
<b>esku-mami</b> 'eskularrua'	«Pospolo sorta esku artean behin eta berriz erabili ondoren, jantzitako <b>esku-mamien</b> artean heltzea lortu zuen.»	(33)
<b>eskuarki</b> 'normalean, generalean'	« <b>Eskuarki</b> , estalitako urmahelen gaineko elurrak bazuen halako itxura hondartu, azukreztatu bat, arriskuaren berri ematen ziena.»	(18)
<b>etsi</b> 'atsekabez onartu'	« <b>Etsi</b> zuen masailak izoztuta zeuzkala; hori bazekien, eta damu mina zuen sudur estalgarri bat apailatu ez izana...»	(16)
<b>ezponda</b> 'muna, lur hegalak'	«...gauzak atzera ikusten hasi zen: erreka <b>ezpondak</b> , egur pila zaharrak, lertxun biluziak, eta zerua.»	(40)
<b>fardel</b> 'paketea'	«Hamaiketakoari dagokionez, zamarra azpiko <b>fardelaren</b> konkorra haztatu zuen.»	(11)
<b>gandu</b> 'lainoa bezalako'	«...hala ere bazirudien halako <b>gandu</b> azal bat ageri zela gauzen gainean, goibeltasun mehe bat, eguna ilunarazten zuena, eta eguzki ezaren kariaz zen.»	(7)
<b>gardostu</b> 'azala edo kanpoaldea erre'	«Zakurrak atsegian hartu zuen sutondoan, luze-luze etzanik, berotzeko bezain gertu eta <b>gardostetik</b> eskapatzeko bezain urrun.»	(21)
<b>goibeltasun</b> 'tristura, iluntasun'	«...hala ere, bazirudien halako gandu azal bat ageri zela gauzen gainean, <b>goibeltasun</b> mehe bat, eguna ilunarazten zuena, eta eguzki ezaren kariaz zen.»	(7)
<b>gorpu</b> 'hilotza'	«...jelatzea oso errotuta zeukala eta laster <b>gorpu</b> gogor geratuko zela.»	(40)
<b>gorputz adarrak</b> 'lohadarrak' (extremidades)	« <b>Gorputz adarrek</b> sentitu zuten lehenik haren gabezia. Oin bustiak hozmindu zitzaizkion arinen...»	(26)
<b>gutiziatu</b> 'desiratu, gogo handiz'	«...bere buruaren onuragatik <b>gutiziatzen</b> zuen sutondora itzultzea. Baina gizonak arriztuaren eta zartailuaren hotsarekin hitz egin zion...»	(23)
<b>hausnartu</b> 'gogoetatu'	«Piska batean <b>hausnartu</b> zuen, masailak eta sudurra igurtziz, gero ezkerretara saihestu zen, poliki-poliki oinkatuz eta urrats bakoitzean oreka neurtuz.»	(18)
<b>haztatu</b> 'eskuekin ikutu'	«Hamaiketakoari dagokionez, zamarra azpiko fardelaren konkorra <b>haztatu</b> zuen.»	(11)
<b>hegi</b> 'ertza, albo'	«Eguargia hotz eta gris urratu zuen, izugarri hotz eta gris, gizonak Yukoneko bide nagusitik saihestu eta ibai <b>hegi</b> erpinean gora egin zuenean...»	(7)
<b>hondartu</b> 'hondoratua, sartuagoa'	«Eskuarki, estalitako urmahelen gaineko elurrak bazuen halako itxura <b>hondartu</b> , azukreztatu bat, arriskuaren berri ematen ziena.»	(18)
<b>hormatu</b> 'izoztua, leitua, jelatua'	«Yukon ibaia milia bat zabal hedatzen zen, ur <b>hormatuak</b> hiru oinbetez estalita.»	(8)
<b>hozmindu</b> 'sorgortu, hotzez gogortu'	«Gorputz adarrek sentitu zuten lehenik haren gabezia. Oin bustiak <b>hozmindu</b> zitzaizkion arinen...»	(26)
<b>ihar</b> 'hila'	«Sastraka azpitik, bertan lehengo udaberriko uholdeak jalkitako adaxka <b>iharrezko</b> hornidura bat baitzegoen, errekena eskuratu zuen.»	(21)
<b>inarrosi</b> 'astindu'	«Besoak atzera eta aurrera <b>inarrosten</b> hasi zen, eskularruekin saihesten kontra kolpatuz.»	(39)
<b>intzigar</b> 'garoa, ur tantatxoak'	«Arnasaren hezetasun jelatuak <b>intzigar</b> hauts fina zerion zakurrari ilean hedatua...»	(13)
<b>iraungi</b> 'amaitu, hil'	«Artaz eta esku baldarrez mainatu zuen sugarra. Bizia esan nahi zuen eta ez zen <b>iraungi</b> behar.»	(35)
<b>irudikor</b> 'irudimentsua'	«Zerbait gertatzen zen, eta zakurraren sen <b>irudikorrak</b> arriskua barrundatu zuen...»	(37)
<b>izei</b> 'abetoa'	«...ekialdera bidezidor lauso eta ibil-bakan bat luzatzen baitzen, <b>izei</b> lodien baso-eremuan barrena.»	(7)



<b>izu laborri</b> 'beldur ikaragarria, itzela'	«Horrek <b>izu laborria</b> sortu zion, eta bira emanda korrikari ekin zion erreka arroan gora...»	(39)
<b>jalki</b> 'kanpora atera'	«Sastraka azpitik, bertan lehengo udaberriko uholdeak <b>jalkitako</b> adaxka iharrezko hornidura bat baitzegoen, errekin eskuratu zuen.»	(21)
<b>kariaz</b> 'kausaz'	«...hala ere bazirudien halako gandu azal bat ageri zela gauzen gainean, goibeltasun mehe bat, eguna ilunarazten zuena, eta eguzki ezaren <b>kariaz</b> zen.»	(8)
<b>kiribildu</b> 'biribilean bildu'	«...buztana aurreko hanken gainean kiribildu eta gizonaren aurrean eseri zen, buruz buru, harrigarriro lehiatsu eta arretatsu.»	(42)
<b>lahar</b> 'sasia'	«...milia batzuk ibili, <b>laharrez</b> jositako zelaiune zabal bat zeharkatu eta munto batean behera eginez, hormatutako erreka baten arroraino jaitzi zen.»	(14)
<b>lehiatsu</b> 'sutsu, gogo handiz'	«...buztana aurreko hanken gainean kiribildu eta gizonaren aurrean eseri zen, buruz buru, harrigarriro <b>lehiatsu</b> eta arretatsu.»	(42)
<b>lertxun</b> 'orrikara' (álamo, zuhaitz mota)	«...gauzak atzera ikusten hasi zen: erreka ezpondak, egur pila zaharrak, <b>lertxun</b> biluziak, eta zerua.»	(40)
<b>mainatu</b> 'maitasunez zaindu'	«Artaz eta esku baldarrez <b>mainatu</b> zuen sugarra. Bizia esan nahi zuen eta ez zen iraungi behar.»	(35)
<b>mokadu</b> 'ahokada'	«Opilari <b>mokadu</b> bat kentzeko paradarik ere ez zuen izan. Hatz joka jardun eta atzera jantzi zituen eta beste eskua erantzi, jateko asmoarekin.»	(20)
<b>morrale</b> 'mozala' (abereena)	«...jelazko <b>morraleak</b> hain irmoki eusten zien ezpainei, zuku botatzerakoan ezin baitzuen kokotsa garbitu.»	(13)
<b>munto</b> 'muinoa, altakurra'	«...milia batzuk ibili, laharrez jositako zelaiune zabal bat zeharkatu eta <b>munto</b> batean behera eginez, hormatutako erreka baten arroraino jaitzi zen.»	(14)
<b>murduskatu</b> 'gaizki ahoskatuz hitzegin'	«—Zuzen hengoen bai, axeri zahar hori, zuzen hengoen! — <b>murduskatu</b> zion gizonak Sulfuro erreka beteteranoari.»	(44)
<b>narrabide</b> 'trineo-bidea'	« <b>Narrabide</b> zaharraren ildo ageri-agerian zegoen, baina dozena bat ontzako elurak estaltzen zituen azken trineoaren arrastoak.»	(15)
<b>oinbete</b> 'neurria, metro erdi inguru'	«Yukon ibaia milia bat zabal hedatzen zen, ur hormatuak hiru <b>oinbetez</b> estalita.»	(8)
<b>oinkatu</b> 'oina ipini, urratsa egin'	«Piska batean hausnartu zuen, masailak eta sudurra igurtziz, eta gero ezkerretara saihestu zen, poliki-poliki <b>oinkatuz</b> eta urrats bakoitzean oreka neurtuz.»	(18)
<b>orpoz orpo</b> 'hurbil-hurbiletik'	«Gizonari <b>orpoz orpo</b> zakur bat zerraion trostaz, bertako husky handi bat...»	(12)
<b>parada</b> 'egokiera, abagunea'	«Opilari mokadu bat kentzeko <b>paradarik</b> ere ez zuen izan. Hatz joka jardun eta atzera jantzi zituen eta beste eskua erantzi, jateko asmoarekin.»	(20)
<b>piko</b> 'aldapatsua'	«Hegi <b>pikoa</b> zen, eta arnasa hartzeraz gelditu zen gailurrean...»	(7)
<b>saihestu</b> 'desbideratu'	«Eguargia hotz eta gris urratu zuen, izugarri hotz eta gris, gizonak Yukoneko bide nagusitik <b>saihestu</b> eta ibai hegi erpinean gora egin zuenean...»	(7)
<b>sen</b> 'instintua'	« <b>Senak</b> kontseilu hobea ematen zion zakurrari, gizonari zentzuak ematen ziona baino.»	(12)
<b>trostaz</b> 'galapan'	«Gizonari orpoz orpo zakur bat zerraion <b>trostaz</b> , bertako husky handi bat...»	(12)
<b>txartaka</b> 'erre zaratak ateratzen'	«Hantxe zegoen sua, <b>txartaka</b> eta txinpartaka eta bizi-aldarrika gar dantzari bakoitzarekin.»	(28)
<b>txinpartaka</b> 'xingarrak botaka'	«Hantxe zegoen sua, txartaka eta <b>txinpartaka</b> eta bizi-aldarrika gar dantzari bakoitzarekin.»	(28)
<b>urmahel</b> 'ur geldizko putzuak'	«Tranpa hutsak ziren. Elurpean <b>urmahelak</b> ezkututzen zituzten...»	(17)



<b>zartailu</b> 'zigorra, latigoa'	«Bata bestearen menpeko zen, eta noizbait hartu zituen laztan bakarrak, <b>zartailuaren</b> laztanak izan ziren...»	(22)
<b>zeruertz</b> 'ortzemuga, ostertz-horma'	«...haren esfera gozagarria, hegoaldera bidean, <b>zeruertzaren</b> gainetik ozta-ozta azaltzeko eta berehala begibistatik desagertzeko.»	(8)
<b>zurrundu</b> 'gogor geratu'	«Benetan hotz zegoen, deliberatu zuen, <b>zurrundutako</b> sudurra eta masailak eskula- rruetan igurzten zituen bitartean.»	(12)